

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones de Impulso a la Competitividad Comarcal para el año 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren barruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea da Eskualdeko Lehiakortasuna Bultzatzeko Programaren oinarriak eta 2023rako deialdia onartzea, eta, haren bitartez, baliabide ekonomikoak eman nahi zaizkie eskualde-garapeneko agentziei lehiakortasunaren gakoetan eragiten duten ekimenak garatu eta bultzatzeko.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto aprobar las bases del Programa de Impulso a la Competitividad Comarcal y su convocatoria para el ejercicio 2023 y su finalidad es facilitar recursos económicos a las agencias de desarrollo comarcal para desarrollar e impulsar iniciativas que incidan en las claves de la competitividad.



Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du, hau da, “Eskualdearen garapena bultzatzeko dirulaguntzak eta proiektuak”, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen lerro horren helburua da “Lurralde orekatuaren ikuspegitik Bizkaia lehikortasuna bultzatzea” eta aipatutako Plan Estrategikoaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, hau da, “Bizkaia, lurralde orekatua”, “Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko dirulaguntza-programaren” bidez.

Dekretu honek arautzen duen laguntza-programa lagungarria da Ekonomia Sustatzeko Sailaren «Bizkaia Orekan Sakonduz» estrategia hedatzen laguntzeko, eta, estrategia horren bitartez, lehiakortasun sendo eta iraunkor bat eraiki nahi da, lurraldeari dagokionez orekatua eta 4 zutabetan oinarritua:

1. Lurralde heterogeneoari erantzuteko beharra, egitura ekonomikoaren eta enpresa-ehunaren ikuspegitik.
2. Lankidetzaren garrantzia lurralde-garapeneko estrategiak bultzatzeko.
3. Lurralde-lehiakortasuneko esparru baten ikuspegi estrategikoa, enpresen jokabidean, lurraldearen espezializazioan eta ingurunearen kalitatean jarduteko ahalmena azpimarratzen duena.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino a “Subvenciones y proyectos para impulsar el desarrollo comarcal” y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora. Dicha línea de subvenciones tiene como objetivo “Impulsar la competitividad de Bizkaia desde una perspectiva de equilibrio territorial” y contribuye a alcanzar el objetivo estratégico del citado Plan Estratégico de “Bizkaia, un territorio equilibrado” mediante el programa de impulso a la competitividad comarcal.

El programa de ayudas regulado por este decreto contribuye a facilitar el despliegue de la estrategia del Departamento de Promoción Económica “Bizkaia Orekan Sakonduz” cuya misión es construir una competitividad robusta, sostenible y territorialmente equilibrada basada en 4 pilares:

1. La necesidad de responder a un territorio heterogéneo desde el punto de vista de su estructura económica y tejido empresarial.
2. La importancia de la colaboración para impulsar estrategias de desarrollo territorial.
3. El enfoque estratégico de un marco de competitividad territorial que enfatiza el potencial de actuar sobre el comportamiento de las empresas, la especialización del territorio y la calidad del entorno.



4. Eskualdeetako eragileek ingurunearekin elkarreragiteko duten gaitasuna eta ahalmena.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen 2019ko abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Sailari esleitzen dio eskualdeak eta udalerrak garatzeko ardura, funtsezko ardatz legez harturik Bizkaiko eskualdeen lehiakortasuna indartzea, eskualdeko eta tokiko garapen ekonomikorako eragileekiko lankidetzaren bitartez.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio

4. La capacidad y el potencial de los agentes comarcales para interactuar con su entorno.

II

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36 1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en desarrollo comarcal y local, teniendo como eje fundamental el fortalecimiento de la competitividad de las comarcas de Bizkaia a través de la colaboración con los agentes de desarrollo económico comarcales y locales.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1



Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako

de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Informe de legalidad.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación



eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Previa del Impacto en función del género.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

IV

Oinarri hauetan ezartzen den araubidea duten dirulaguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan ezarritako moduan, ez baitute lehia faltsutzen edo faltsutzeko mehatxua egiten, ez baitiote onurarik ekartzen enpresa bati, eta ez baitiote laguntzen ekoizpen edo enpresa jakin batzuei beste batzuen kaltetan.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases no constituyen una ayuda de estado en los términos establecidos en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no falsean o amenazan con falsear la competencia, no suponen un beneficio para una empresa ni favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras.

V

V

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-laguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo



artikuluak aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 21eko bileran aztertu ondoren, honako hau.

de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 21 de marzo de 2023.

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

2023 urterako Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Impulso a la Competitividad Comarcal para el año 2023 cuyo texto se incluye a continuación.



Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"),

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al olvido"), oposición, limitación del



aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebotatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Xedapen iragankor bakarra. *Aurreko urteko Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko programa aplikatzea.*

Disposición transitoria única. *Aplicación del Programa Impulso a la Competitividad Comarcal del año anterior.*

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak 21/2022 martxoaren 1eko foru-dekretuan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo de la regulación indicada en esta disposición transitoria serán resueltos conforme a lo establecido en el Decreto Foral 21/2022, de 1 de marzo.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko dirulaguntza-programa indargabetzea.*

Disposición derogatoria única. *Derogación del programa de subvenciones Impulso a la Competitividad Comarcal del año anterior.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da 21/2022 martxoaren 1eko foru-dekretua,

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto Foral 21/2022, de 1 de marzo, por el que se



honen bidez, Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko 2022. urteko programaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones para el año 2022 del Programa de Impulso a la Competitividad Comarcal, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

4. Azkenik, Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio deklaratzeko badela kreditu gehigarria eta/edo aurrekontu-kredituen arteko behin betiko banaketa egiteko, jarraibidetzat harturik 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak 43. artikuluan

4. Finalmente, se faculta a la diputada foral de promoción económica para declarar la disponibilidad de crédito adicional y/o la distribución definitiva entre créditos presupuestarios, al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que





ezartzen duena, foru-dekretu horrek onartzen duelarik 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua.

se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Bilbon, 2023ko martxoaren 21ean

Dado en Bilbao, a 21 de marzo de 2023

Ahaldun Nagusia

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua

El Diputado General

La diputada foral de promoción económica

UNAI REMENTERIA MAIZ

AINARA BASURKO URKIRI



2023. URTEKO ESKUALDEKO
LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO
DIRULAGUNTZA-PROGRAMA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA
DEIALDIA

Aurkibidea:

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*
2. oinarria. *Definizioak.*
3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*
4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*
5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*
7. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

II. TITULUA Araubide juridikoa

8. oinarria. *Araubide juridikoa.*
9. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*
10. oinarria. *Arau-haustea eta zehapenak.*
11. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*
12. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

III. TITULUA Dirulaguntzak emateko
prozedura

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES DE IMPULSO A LA
COMPETITIVIDAD COMARCAL PARA EL
AÑO 2023.

Índice:

TÍTULO I Disposiciones generales

- Base 1. *Objetivo de la subvención.*
- Base 2. *Definiciones.*
- Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*
- Base 4. *Hecho subvencionable.*
- Base 5. *Gastos subvencionables.*
- Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*
- Base 7. *Dotación presupuestaria.*

TÍTULO II Régimen jurídico

- Base 8. *Régimen jurídico.*
- Base 9. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*
- Base 10. *Infracciones y sanciones.*
- Base 11. *Incumplimiento y reintegro.*
- Base 12. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

TÍTULO III Procedimiento de concesión



13. oinarria. <i>Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.</i>	Base 13. <i>Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.</i>
14. oinarria. <i>Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.</i>	Base 14. <i>Documentación necesaria para la solicitud.</i>
15. oinarria. <i>Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.</i>	Base 15. <i>Subsanación o mejora de la solicitud.</i>
16. oinarria <i>Dirulaguntza emateko prozedura.</i>	Base 16 <i>Procedimiento de concesión.</i>
17. oinarria. <i>Eskabideak baloratzeko irizpideak.</i>	Base 17. <i>Criterios de valoración de las solicitudes.</i>
18. oinarria. <i>Ebazpena.</i>	Base 18. <i>Resolución.</i>
19. oinarria. <i>Errekurtsoak.</i>	Base 19. <i>Recursos.</i>
20. oinarria. <i>Dirulaguntzari uko egitea.</i>	Base 20. <i>Renuncia a la subvención.</i>
21. oinarria. <i>Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.</i>	Base 21. <i>Modificación de la resolución de concesión.</i>
22. oinarria. <i>Emandako dirulaguntzen publizitatea.</i>	Base 22. <i>Publicidad de las subvenciones concedidas.</i>
23. oinarria. <i>Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.</i>	Base 23. <i>Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.</i>
24. oinarria. <i>Jakinarazpen elektronikoa.</i>	Base 24. <i>Notificación electrónica.</i>
IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola	TÍTULO IV Ejecución, justificación y control
25. oinarria. <i>Gauzatzeko epea.</i>	Base 25. <i>Plazo de ejecución.</i>
26. oinarria. <i>Justifikazio-epea.</i>	Base 26. <i>Plazo de justificación.</i>
27. oinarria. <i>Azpikontратazioaren baldintzak.</i>	Base 27. <i>Condiciones de subcontratación.</i>
28. oinarria. <i>Dirulaguntzak justifikatzea.</i>	Base 28. <i>Justificación de las subvenciones.</i>
29. oinarria. <i>Dirulaguntza ordaintzea.</i>	Base 29. <i>Pago de la subvención.</i>
30. oinarria <i>Laguntzen bateragarritasuna.</i>	Base 30 <i>Compatibilidad de las ayudas.</i>



31. oinarria. *Entitate onuradunen beste betebeharrak.*

Base 31. *Otras obligaciones de las entidades beneficiarias.*

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Programa honen helburua da erakunde onuradunek lehiakortasuna eta lurralde-oreka indartzeko sustapen ekonomikoko proiektuak eta jarduerak gara ditzaten bultzatzea. Beren eraginpeko lurralde-eremuk enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduerak izango dira, bai eta eremu horretan jarduteko gaitasunak indartzea dakartenak ere, Bizkaia Orekan Sakonduz eskualdeko garapen-estrategiaren ildotik.

2. oinarria. *Definizioak.*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

a) Industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia: lurralde-eremu jakin batean industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzen dituzten erakundeak dira, eta Bizkaiko udalerri bat edo gehiago har ditzakete.

Agentzia osatzen duten udalerri guztiek harengan uste dute sustapen ekonomikoaren ardura eta enpresa-lehiakortasunaren aldeko babesa

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

El objetivo de este Programa es favorecer que las entidades beneficiarias desarrollen proyectos y actuaciones de promoción económica para fortalecer la competitividad y el equilibrio territorial. Serán actividades dirigidas a mejorar la competitividad de las empresas de su ámbito territorial de influencia, así como aquellas que supongan un refuerzo de sus capacidades de actuación en este ámbito, en línea con la estrategia de desarrollo comarcal Bizkaia Orekan Sakonduz.

Base 2. *Definiciones.*

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) Agencia de promoción de la industria y de servicios conexos: Son entidades que realizan promoción de la industria y de servicios conexos en un ámbito territorial determinado, pudiendo abarcar uno o más municipios de Bizkaia.

Todos los municipios integrados en la Agencia confían en ella la actividad de promoción económica y apoyo a la competitividad empresarial en el sector



industriaren eta hari loturiko zerbitzuetan. Erakunde horiek toki-korporazio baten eskuordetzea jaso behar dute, edo, halakorik ezean, eginkizun hori izan behar dute identifikaturik beren estatutuetan.

Udalerri batean ez badago agentziarik industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko, jotzen da udalak berak edo dagokion mankomunitateak har dezaketela beren gain agentzia-rol hori zuzenean.

b) Erreferentziazko entitatea: Industria eta hari lotutako zerbitzuak sustatzeko agentzia bat da, hiru udalerri baino gehiagoko jarduera-eremua duena.

Agentzia osatzen duten udalerriek hark bete beharreko rola berretsi izanaren emaitza izan daiteke entitate hori, eta/edo gogoeta estrategikoko prozesu baten emaitza nahiz industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko gobernantza-eredu bat diseinatu eta ezartzearena.

Gainera, erreferentziazko erakundeek beren lurralde-eremuko industria- eta zerbitzu-enpresei egin behar diete kontu, haien lehiakortasuna erraztuko duten zerbitzuak eskaini behar dituzte eta aldian-aldian eguneratu haien bilakaerari buruzko informazioa. Horretarako, beren funtzioa egoki egiteko behar diren baliabideak izan behar dituzte.

c) Industriaren eta hari loturiko zerbitzuen sektorea: honako enpresa hauek dira Bizkaia Orekan Sakonduz Estrategiaren xede: industriaren sektorekoak, industriarekin lotutako zerbitzuetakoak, garraioa eta handizkako merkataritzaren

industrial y de servicios conexos. Estas entidades han de recibir esta delegación de la actividad por parte de una corporación local o, en su defecto, tener esta función identificada en sus estatutos constitutivos.

En caso de no existir en un municipio una Agencia para la promoción de la industria y servicios conexos, se considera que el propio Ayuntamiento, o la Mancomunidad correspondiente, puede asumir directamente este rol de Agencia.

b) Entidad de referencia: Es una Agencia para la promoción de la industria y de servicios conexos cuyo ámbito de actuación abarca más de tres municipios.

Esta entidad puede ser producto de la ratificación por parte de los municipios integrantes del rol a desempeñar por la entidad y/o resultado de un proceso de reflexión estratégica o de diseño e implantación de un modelo de gobernanza para la promoción de la industria y los servicios conexos.

Además, las entidades de referencia han de atender a las empresas industriales y de servicios conexos de su ámbito territorial, ofrecer servicios que favorezcan su competitividad y actualizar periódicamente información sobre su evolución. Para ello han de disponer de recursos que garanticen un correcto desempeño

c) Sector industrial y de servicios conexos: las empresas objetivo de la Estrategia Bizkaia Orekan Sakonduz son las empresas de los sectores industrial, servicios conexos con la industria, transporte y comercio al por mayor. A los efectos del presente



sektorekoak. Dekretu honen ondorioetarako, jotzen da honako hauek industriaren eta hari loturiko zerbitzuen sektorean sartzen direla: erauzketa-industriak, manufaktura-industriak, energia-hornidura, ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa, eraikuntza (higiezinaren sustapena izan ezik), handizkako merkataritza, ibilgailuen konponketa, garraioa eta biltegiratzea, informazioa eta komunikazioak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (salbu eta segurtasuna eta ikerketa) eta enpresentzako konponketa-zerbitzuak.

decreto, se entienden incluidos en el sector industrial y de servicios conexos a los siguientes: industrias extractivas, industrias manufactureras, suministro de energía, suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación, construcción (salvo promoción inmobiliaria), comercio al por mayor, reparación de vehículos, transporte y almacenamiento, información y comunicaciones, actividades profesionales, científicas y técnicas, actividades administrativas y servicios auxiliares (salvo seguridad e investigación) y servicios de reparación dirigidos a empresas

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

1. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke «erreferentziazko entitate» nahiz «industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia» diren pertsona juridikoak, 2. oinarrian emandako definizioaren arabera.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeak izan daitezke diru-laguntzen onuradunak, baldin eta:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea lurralde horretan izatea.

b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikulua araber, 30.000,00 eurotik

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones las personas jurídicas que sean “Entidades de referencia” o “Agencias para la promoción de la industria y servicios conexos” según definición en Base 2.

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para



gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.

subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004) deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere).

c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia propioa duten udalak edo mankomunitateak.

a) Los Ayuntamientos o Mancomunidades que cuenten con una Agencia propia para la promoción de la industria y servicios conexos.

b) Industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia bat duten udalerriak ordezkatzeko dituzten toki-eremuko erakundeak.

b) Las entidades de ámbito local que representen a municipios donde exista una Agencia para la promoción de la industria y servicios conexos.

c) Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoak edo foru-sozietate publikoak.

c) Las Sociedades Públicas Forales o dependientes del Gobierno Vasco.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta

d) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las Mujeres (en adelante Ley 4/2005).

e) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

e) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Diruz lagun daitekeen egitatetzat jotzen dira eskualdean lehiakortasuna sustatzeko jarduerak, industria-sektoreko enpresen, industriarekin loturiko zerbitzuen, garraioaren eta handizkako salerosketaren sektoreetako enpresen beharriaz erantzuten dietenak.

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable las actividades para impulsar la competitividad en clave comarcal que den respuesta a las necesidades de las empresas de los sectores industrial, servicios conexos con la industria, transporte y comercio al por mayor.

2. Bi jarduera-mota izango dira diruz laguntzekoak:

2. Las tipologías de actividades subvencionables serán las siguientes:

a) Ekonomia suspertzeko eta enpresa-lehiakortasuna hobetzeko jarduerak, berrikuntza, nazioartekotzea, eta ekintzailatza aurreratua bultzatuz.

a) Actividades para la reactivación económica y mejora de la competitividad empresarial a través del impulso de la innovación, la internacionalización y el emprendimiento avanzado.

b) Bere jarduera-lurralde eremuko enpresa-ehunaren zerbitzura dauden erakunde onuradunek gaitasunak

b) Actividades para el fortalecimiento de capacidades, en el ejercicio de la función de promoción económica, por parte de las



indartzeko jarduerak, sustapen ekonomikoaren funtzioa betez. Mota horretan jarduketa hauek sartuko dira:

1) Eskualdeko ekonomia sustatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko gobernantza-eredu bat diseinatzea eta/edo abian jartzea.

2) Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzeko plan estrategikoak egitea, gutxienez hiru urterokoak.

3) Beren lurralde-eremuan kokatutako enpresa-ehunaren jarraipena egiteko prozedurak eta sistemak garatu eta ezartzea, beren zerbitzuen hartzaile izan daitezkeen enpresen errolda bat osatuz.

4) Tokiko edo eskualdeko enpresa-sarerako bere balio-proposamena diseinatzeko (edo berriz diseinatzeko) banakako beste ekintza batzuk ere.

3. Diruz lagun daitekeen egintzatzat hartzeko, aurkeztutako jarduerak argi eta anbiguotasunik gabe kokatu behar dira deskribatutako tipologia eta jarduketa horietako batean. Era berean, jardueron barruko atazek, faseek, helburuek edo aurreikusitako emaitzek lotura eta koherentzia izan behar dute elkarren artean.

4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

entidades beneficiarias al servicio del tejido empresarial de su ámbito territorial de actuación. En este tipo se incluirán las siguientes actuaciones:

1º. Diseño y/o puesta en marcha de un “Modelo de gobernanza” para la promoción económica y mejora de la competitividad empresarial comarcal.

2º. Formulación de Planes estratégicos comarcales para la promoción de la actividad económica y la mejora de la competitividad del tejido empresarial que abarquen un mínimo de tres anualidades.

3º. Desarrollo e implementación de los procedimientos y sistemas para realizar un seguimiento del tejido empresarial ubicado en su ámbito territorial, configurando así un censo de empresas potenciales destinatarias de sus servicios.

4º. Otras acciones individuales para el diseño (o rediseño) de su propia propuesta de valor hacia el tejido empresarial local o comarcal.

3. Para considerarse como hecho subvencionable, las actividades presentadas han de enmarcarse claramente y sin ambigüedad en una de las anteriores tipologías y actuaciones descritas. Asimismo, las diferentes tareas, fases, objetivos o resultados previstos en las que se descompongan han de tener conexión y coherencia entre sí.

4. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.



5. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

a) Aurkeztutako jardueretan diharduten langileen barne-gastuak.

Langileen barne-gastuen kontzeptuaren barruan, erakunde eskatzailearen konturako karga sozialak eta soldata-kostuak daude sartuta. Orduko kostua honela kalkulatu da:

$$\text{Kostua €-tan / ordua perts.} = \frac{\text{GSKO} \times 12 \times 1,25}{\text{Urteko ordu-kop.}}$$

GSKO kontingentzia arruntei dagokien hileko kotizazio-oinarria da, langileak Gizarte Segurantzari egin beharrekoa. Beste kotizazio-erregimen batzuei atxikita dauden pertsonen kasuan, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorraren oinarriaren antzeko bat hartuko da.

Urteko ordu kopurua, berriz, langileak lan-hitzarmenaren arabera urtean egin behar dituen lanorduen kopurua da, kasu

5. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere practicas calificadas como infracciones en el Titulo IV de la Ley 15/2022.

Base 5. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad, que a continuación se indican:

a) Gastos internos del personal dedicado a las actividades presentadas.

Se incluyen en este concepto los costes salariales y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante. El cálculo del coste/hora se realizará de la siguiente forma:

$$\text{Coste €/ hora pers.} = \frac{\text{B.C.S.S} \times 12 \times 1,25}{\text{Nº horas anuales}}$$

B.C.S.S. es la base mensual de cotización por contingencias comunes de la persona trabajadora a la seguridad social. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se tomará una base asimilada a la del Régimen General de la Seguridad Social.

Nº de horas anuales es el número de horas laborales anuales de la persona trabajadora, según convenio, afectado, en



bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero.

b) Diruz lagundu daitekeen egitatearekin zuzenean lotutako kanpoko gastuak.

2. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketengastutzat joko:

a) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.

b) Ez direnak egiten deialdi bakoitzean ezarritako exekuzio-epean.

c) Ezarritako justifikazio-aldia amaitu ondoren ordaindutakoak.

d) Merkatuko balioa gainditzen duten gastuak.

e) Zergak eta tasak, baita BEZa ere, salbu eta entitate onuradunak ezin duenean berreskuratu edo konpentsatu.

f) Gastu orokor osagarriak; adibidez, administrazio-gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).

g) Bidaia, janari eta mantenu gastuak.

h) Aktibo finkoen alokairu-gastuak.

i) Ekipamendua erosteko eginiko ibilgetu materialeko inbertsioak.

j) Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura dagoen

su caso, por el porcentaje de reducción de jornada correspondiente.

b) Gastos externos directamente vinculados al hecho subvencionable.

2. No se considerarán gastos subvencionables:

a) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención.

b) Los que no se realicen en el plazo de ejecución establecido en cada convocatoria.

c) Los abonados después de la finalización del periodo de justificación establecido.

d) Los gastos que sean superiores al valor del mercado.

e) Los impuestos y tasas, incluyendo el IVA, excepto en el caso en que no pueda ser recuperado o compensado por la entidad beneficiaria.

f) Los gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...).

g) Los gastos de viajes, comidas y manutención.

h) Los gastos de alquiler de activos fijos.

i) Las inversiones en inmovilizado material para adquisición de equipamiento.

j) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora



kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnean. Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2 artikuluan ezarritako kasuetan.

k) Hornitzailea «erreferentziazko entitate» edo «industria eta hari loturiko zerbitzuak sustatzeko agentzia» bat deneko gastuak.

h) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

3. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, hau da, 15.000 euro edo gehiago (zergak barne hartu gabe), hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan behar adina entitate ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin denean.

cuando no se den las condiciones establecidas en el artículo 27.7.d) de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, para su consideración como subvencionables. A estos efectos se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 53.2 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

k) Los gastos en los que el proveedor sea una “Entidad de referencia” o una “Agencia para la promoción de la industria y servicios conexos”.

h) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.

